

# Hamatarpi

2015eko udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

- \_ **RAP-A, AHALDUNTZE FEMINISTARAKO TRESNA**
- \_ **FISIOTERAPIA ZENTRO BAT IREKIKO DA ZIGOITIAN**
- \_ **ZIGOITIKO UDALAK BERE KUDEAKETA LINGUISTIKOA ARAUTU DU**
- \_ **ANFIBIOAK BABESTEKO URMAELA ERAIKIKO DA GORBEIAKO MAGALETAN**
- \_ **GORBEIA ERRETIRATUEN ELKARTEA: BETERANOTASUNA ETA UMORE ONA**
- \_ **GURASOEN TXOKOA, EUSKARA ZERBITZUAREN ETA GIZARTE ETA KULTUR ZENTROAREN IDEIA**

## Hasteko...



### 04 Hizkuntza irizpideak

Udalak bere kudeaketa linguistikoa arautu du, euskarari espazio berriak zabaltzeko

## Hemen eta orain



### 06 Fisioterapia zentro berria

Gopegin irekiko da, Udaleko Enplegu Planaren laguntzarekin



### 07 Gurasoen Txokoa

Gurasoei zuzendutako euskarazko gunea



### 10 Berdintasuna

Rap-a, ahalduntze feministarako tresna

## Made in Zigoitia



### 11 Gorbeia erretiratuen elkarte

Une gozoak, gimnasia, hitzaldi eta karta-saio artean

## Planak



### 13 Amaru Kultura elkarte

Sormen kolektiborako espazio irekiera, aldaketa sozialaren bila

## Liburutegitik, maitasunez



### 14 Javier Arbuluren kolaborazioa

Gero arte, Erik! Kaixo, Char!

## Azkena



### 16 Batzuk

- Ander Gómez San Jorgeren pintura erakusketa
- Autobusen ordutegia

## Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2015eko udaberria

**Azaleko pintura:** Ander Gómez San Jorge. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



## Zuiako Kuadrillak GORBEIALDEKO KUADRILLA/ CUADRILLA DE ESTRIBACIONES DEL GORBEIA izan nahi du

- Izendapen aldaketa Kuadrillako Batzarrak onartu du aho batez
- Arabako Batzar Nagusien onarpenarekin bukatuko den prozesu bat hasi da, era honetan

Zuiako Kuadrillaren barruan dago Zigoitia eta, bera bezala, beste bost udalerrri: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urbabustaiz eta Zuia. Hori dela eta, gaur egungo izendapenarekin, hau da, zati baten izenarekin, osotasuna izendatzen da, batzuetan konfusio handia sortuz eta gainera eskualdean bizi den biztanleriaren gehiengoa ordezkatu gabe.

Hori guztia kontuan hartuta, Kuadrillako Batzarrak bere 12 kideen aho bateko botoarekin onartu du Gorbeialdeko Kuadrilla / Cuadrilla de Estribaciones del Gorbeia izendapen berriaren bidez gaur egungo izena aldatzeari onarpena ematea.

Adostutako izena, Gorbeialdeko Kuadrilla, eskualdeko udalerrri guztiak ondoen ordezkatzen dituena da. Gainera, eremu honetan jardunean ari diren beste erakunde batzuk ere erabiltzen dute; esate baterako 'Mairuelegorreta Gorbeia Inguruko

Landa Garapen Elkarte' eta, besteak beste zabor bilketa kudeatzen duena, 'Gorbeia Inguruetako Partzuergoa'.

Kuadrillako Batzarraren aho bateko onarpenaren ondoren hasi den prozesuak ekarri du Arabako Aldizkari Historiko Ofizialean akordioa argitaratzea, egunkari batean iragartzea eta Euskaltzaindiari txosten bat eskatzea. Dena bukatzeko, datozen hilabeteetan, Arabako Biltzar Nagusien onartzearekin. Kuadrillatik aldaketa honi izaera naturala eman nahi diote. Beste Kuadrilla batzuetan ere egin da, hala nola Guardiakoan, gaur egun Guardia-Arabar Errioxako Kuadrilla baitu izena; baita Kanpezukoan ere, orain Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla baita, eta, orain gutxi, baita Aguraingoan ere, Arabako Lautadako Kuadrilla izena hartu duelarik.

## 2015eko Zerga-ordaintzailearen egutegia

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA .....**  
**Borondatezko epea:**  
 2015-03-01 \_ 2015-04-30  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:**  
 Apirilaren hasieran

**LANDA HIGIEZINEN ZERGA .**  
**Borondatezko epea:**  
 2015-05-01 \_ 2015-06-30  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:**  
 Ekainaren hasieran

**KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA .....**  
**Borondatezko epea:**  
 2015-05-01 \_ 2015-06-30  
 (lehenengo epea, kuotaren %50)  
 2015-09-01 \_ 2015-10-31  
 (bigarren epea, kuotaren % 50)  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:**  
 Lehenengo epea (kuotaren %50) ekainaren hasieran  
 Bigarren epea (kuotaren %50) urriaren hasieran

**ZABOR BILKETAREN TASA ..**  
**Borondatezko epea:**  
 2015-05-01 \_ 2015-06-30  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:**  
 Ekainaren hasieran

**ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA**  
**INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**  
 Udaletxea. Telefonoa:  
 945 46 40 41. Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.  
 Faxe: 945 46 40 52, e-mail:  
 zigoitia@zigoitia.org

**FINANTZA-ERAKUNDEETAN HELBIDERATU GABEKO ORDAINKETAK**  
 Ordaintzeko lekuak: Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan.  
 Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitikoudala.org](http://www.zigoitikoudala.org) (Nire ordainketa).

**FINANTZA-ERAKUNDEETAN HELBIDERATUTAKO ORDAINKETAK**  
 Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

## ZIGOITIKO UDALAK BERE KUDEAKETA LINGUISTIKOA ARAUTU DU

Gutxiengoan dagoen hizkuntzari espazio berriak zabaltzeko helburuarekin



Igerilekuetako tabernako horman Gaztelekuko neska-mutilek egindako grafiti.

**Udalaren eguneroko funtzionamenduan eragin zuzena duten hizkuntza irizpideak onartu zituen osoko bilkurak, 2014aren amaieran. Euskara eta gaztelaniaren erabilera arautzea eta udalaren funtzionamendu integralean eragitea da asmoa. Herritarrei zuzenean eragiten dietenak bildu ditugu Hamazazpiren ale honetan.**

Bide luzea egin du Zigoitiko Udalak, orain arte, euskara eta gaztelaniaren erabilera parean jartzeko bidean. Bai ordezkari politikoen ekimenez, bai langileek ardurak hartuta, gero eta zabalagoa da herritarrek euskaraz jaso dezaketzen zerbitzu-kopurua.

Eta, hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko. Tokiko administrazioak aukera ona du, nahikoa baliabide duen eremuetan, hizkuntza ofizialen erabilera eredu izateko.

Zigoitiko Udalak pauso bat gehiago eman du bide horretan: euskara eta gaztelania nola eta noiz erabili behar dituen arautu du, beti ere, gutxiengoan dagoen hizkuntzari espazio berriak

zabaltzeko helburuarekin.

Herritarrei ere eragiten die erabaki honek; eta, bereziki, noski, euskaraz bizi diren herritarrei. Aipatutako horiekin zerikusia duten neurriak ekarri nahi izan ditugu Hamazazpira:

· *Argitaratutako kartel eta iragarki guztiak elebitan egongo dira:* paisaia linguistikoari zuzenean eragitea da asmoa.

Zigoitiko Udalak, herritarrei, modu orokorrean, jakinarazten dien mezu laburren gehiengoa harrapatu, eta euskaraz eta gaztelaniaz izan dadin bermatu nahi da.



Udal erakundeetan lehenengo hitza euskaraz izango da, bai leihatilan eta bai telefonoz.

· *Erakundearen harreran, lehenengo hitza euskaraz egongo da, bai leihatilan eta bai telefonoz:* mundu guztiak suposatzen du, elkarrizketa bat hasterakoan, parekoak gaztelaniaz dakiela, baina euskaraz dakien ala ez pentsatzen hasi, eta zalantzak sortzen dira. Horrelakoetan, garrantzitsua da, harreraz arduratzen diren postuetan, hasiera-hasieratik hala jakinaraztea. Herritarrek ziurtasunez jakin behar dute aurrean duten langileak bi hizkuntza ofizialean moldatzeko gaitasuna baduela.

· *Zigoitiko udal zerbitzuek antolatzen dituzten jendaurreko ekitaldi eta bilera irekietan gutxienez harrera euskaraz egongo da:* osoko bilkurak, batzordeak, ekitaldi publikoak... Keinu honen bidez, udala euskararen erabilerarekin kontzientziatuta eta sentsibilizatuta dagoela adieraztea da helburua.

“ *Irizpideak onartuta daude. Orain, jarraipen zorrotza egiteko unea da, ez daitezen karpeta batean gordeta gelditu*

· *Inprimaki eta dokumentu orokor guztiak elebitan egongo dira:* herritarrek jasotzen duten dokumentazio orokorra (eskabide-orriak, bestelako inprimakiak, jakinarazpen orokorrak, eredu estandarizatua dutenak...) euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira. Idatzizko komunikazioa izan ohi da, euskararentzat, eragiteko zailenetakoa den esparrua, baina Zigoitiko Udalean ahalegin serio bat egiteko bidea badago. Bai, behintzat, dokumentazio orokorrean.

“ *Adostutako neurrien artean, kartel eta iragarki guztiak elebitan egongo dira eta ekitaldi eta bilera irekietan gutxienez harrera euskaraz egongo da*

· *Norbaitek eskaera bat euskaraz egiten badu, erantzuna gutxienez euskaraz jasoko du:* udalera euskaraz jotzen duen herritarri berak aukeratutako hizkuntzan erantzutea, horixe da neurri honek jaso nahi duena. Une honetan, erantzun horri atxikitako dokumentazio guztia (adibidez, txosten espezifikoak...) elebitan sortzeko gaitasun nahikoa ez izan arren, gutxieneko bat bermatzea du helburu irizpide honek, eskubideak babeste aldera.



Zigoitia 695 erdaldun daude eta 1.009 euskaldun eta ia-euskaldun. Iturria: EUSTAT. Egilea: Soziolinguistika Klusterra. 2011ko datuak.

Irizpideak onartuta daude, noski. Orain, jarraipen zorrotza egiteko unea da, ez daitezen karpeta batean gordeta gelditu. Udal barruan, arduradunak izendatu dituzte, irizpide bakoitzaren betetze-mailari jarraipena egiteko, eta zerbait aldatu edo zuzendu behar denean, hala egiteko.

Herritarrok ere baduzue aukera, hala nahi baduzue, jarraipen horretan parte hartzeko. Udalaren zerbitzua jasotzerakoan, onartutako irizpideren bat betetzen ez dela ikusten baduzue, edo irizpide berriren bat edo aldaketaren bat proposatu nahi baduzue, udalaren euskara zerbitzura jo dezakezue: [euskara@cuadrillazuia.com](mailto:euskara@cuadrillazuia.com) (Manex).

## Udaleko Enplegu Planaren laguntzarekin

# Fisioterapia Zentro bat irekiko da Zigoitian

Ekintzaile batek jarriko du martxan Urisolo kaleko lonjan, Gopegin



Udalerriko ekintzaile batek bultzatuta, fisioterapia zentroak banakako tratamenduak eta taldeko terapiak eskainiko ditu; bai pertsona partikularrei, bai helduen egoitzei. Eta Udalak Gopegiko Urisolo kalean duen lonjan kokatuko da, etxebizitza sozialen azpian.

Pauso bat aurrera egiten du, horrela, Udaleko Enplegu Planaren lerro estrategiko batek, ekintzaileetako laguntzak sustatzen dituenak, hain zuzen ere. Kasu honetan, lonjaren alokairu onuragarriaren bidez. Guneak 68,35 m<sup>2</sup> erabilgarritako espazioa du eta duela gutxi, Enplegu Planaren beste ekintza baten bidez, langabetu batzuek egokitu dute merkataritza-erabilera emateko. Jarraian Udalak ekintzaileei eskaini zien, alokairuan, hasiera batean 3 urteko epearekin. Interesik adieraziz gero, posible izango da luzatzea bi urteko epeetan, 20 urtetara ailegatu arte, gehienera jota.

Legeak udal ondasunak doan lagatzea baimentzen ez duenez gero, hasierako 3 urteetan eta Zigoitian erroldatutako pertsonentzako, fisioterapia zentroko ekintzailearen kasuan bezala, errenta bonifikatua ezarri da.

Kontsumoak, aseguruak, garbiketa eta gainontzeko gastu partikularrak, aldiz,

bere kontura joango dira. Berdin egokitze lanak egitea ere, beharrezkoa izango balitz.

### Esleipen-irizpideak

Bi ekintzailek erantzun zien Udal-lonjaren eskaintzari eta proiektu bana aurkeztu zituzten. Martxoaren hasieran bildutako kontratazio mahaian aztertu eta baloratu ziren, besteak beste hurrengo irizpideak, jarraituz: - enpresa eta negozioaren bideragarritasunezko proiektua

- sustatzailearen konpromiso gradua eta, sozietate bat izatekotan, lanaldi mota (denbora partzialekoa, eskusiboa...)
- proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoak
- egin beharreko inbertsioak
- ekintzaile berrientzako laguntza, Jarduera Ekonomikoko Zergan alta berriak aintzat hartuz
- jarduerak sortzen duen enplegu kopurua
- desgaitasunik duten pertsonen kontratazioa
- eta emakumeek zuzendutako proiektuak izatea.

Baremazioaren ondoren, fisioterapia-zentroaren proposamena gertatu zen irabazle.

# 'Pupua daukazu? Non? Ez da ezer. Paaaa...!'

Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Gizarte eta Kultur Zentroak GURASOEN TXOKOA jarri dute martxan, elkarlanean



Sarritan, zaila izaten da helburu, estrategia, egitasmo... eta antzerakoak praktikan modu egokian jartzea. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa errazteko modurik egokiena zein izan daitekeen pentsatzen aritu dira, luze, Zigoitiko Udaleko Euskara Zerbitzua, eta Gizarte eta Kultur Zentroko arduradunak. Eta, azkenean, bide egokia hartu dutelakoan daude. Hemendik aurrera, Zentroan sartzeaz bat, ezkerreko gela handian (Topagunean), kolorez betetako txoko bat aurkitu ahal izango dute zigoitiarrek: Gurasoen Txokoa du izena. Berez, ez da gauza handia. Horman eskegitako panel batean hainbat informazio eta baliabide jartzen joango dira, astetik atera berrituz. Batetik, umeekin euskaraz erabiltzeko moduko hitzak, onomatopeiak, esamoldeak... ikasteko aukera egongo da. Horrekin batera, baita umeentzako sehaska-kantak eta bestelako abestiak ere. Sarean, gurasoentzat egon daitezkeen baliabideen informazioa ere egongo da: artikuluak, webguneak, esteka

interesgarriak... Guraso Elkarteko kideek ere izango dute bertan informazioa jartzeko aukera.

Horrez gain, liburuxkak eta liburu interesgarriak kontsultatzeko aukera ere egongo da. Eta, jarduera zehatzei dagokienez, hiru hileko bakoitzean gurasoek, umeekin batera, euskara ardatz delarik, parte hartzeko moduko ekintzak egitean pentsatzen ari dira. Udaberri honetarako, jolas egiteko euskarazko abestien ikastarotxo bat egitea dute buruan. Euskarak nahikoa indar ez duen lekuetan, argi dago, eskolan lan eskergea egin arren, ez dela nahikoa izaten. Aisialdia ere *konkistatu* beharra du euskarak, eta horretarako aukera ezin hobea ematen du Gizarte eta Kultur Zentroak. Beraz, guraso eta umei, euskaraz jakin ala ez, beldurrik gabe txoko honetara gerturatzeko gonbitea luzatu nahi diete egitasmoaren arduradunek. Eta, ia-ia nahi gabe, baietz kantuan hasi: 'Tximeleta mendian, lore baten gainean...'

## Zigoitiko jasangarritasun adierazleak

**Energia kontsumoa, hondakinen kudeaketa... neurtzen dute eta ingurune osoa nola dagoen esaten digute**

**Ba al zenekien gure udalerriko %50 baino gehiago Euskal Autonomi Erdidegoko Paisai paregabeko eta nabarmenen katalogoaren barruan dagoela? Eta Zigoitiko iparraldea eta ekialdea Korridore Ekologikoetako Sarean daudela? Gure ingurune osoa eta paisaia paregabeak dira eta, gainera, balio handikoak. Hori dela eta, zaintzeko eta kontserbatzeko egin behar dugun lana ez da txikia, baina horretan ari gara eta horretarako dauzkagu lagun jasangarritasun adierazleak.**


2011 urtetik Zigoitiko Udala Udalsarea 21eko (jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea) kidea da. Sare hori Euskal Herriko 200 udalerrik eta bestelako erakunde batzuek (UR agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, Osasun Saila...) osatzen dute eta guztion artean jasangarritasunaren aldeko lana eta esperientziak partekatzen dituzte.

Horrez gain, urtero sareko kide diren udalerriek *jasangarritasun adierazleak* kalkulatu dituzte, IHOBE\*-UDALSAREAK zehaztutako irizpide teknikoak eta metodologia jarraituz. Kalkulatuko adierazle hauek udalerrien eta bertako biztanleriaren inguruko arlo ezberdinak neurtzen dituzte: energia kontsumoa, hondakinen kudeaketa, Berotegi Eftektuko Gasen (hau da BEG-en) isurketak... Aspektu horietan guztietan hobera egiteko, ezinbestekoa da neurtzeko metodologia bat aplikatzea eta hori da, hain zuzen ere, helburu nagusia: jasangarritasunaren bidean aurrera egitea.

Hona hemen Zigoitian kalkulatuak adierazle batzuen emaitzak eta azken urteotako bilakaera:

### 1 BEG-en isurketa, sektoreka:

IHOBEren kalkuluen arabera, BEGen gasen isurketei dagokionez, Zigoitian guztira 25.353 CO<sub>2</sub>-tona baliokide isurtzen ziren iaz (biztanle bakoitzeko 11,7 CO<sub>2</sub>-tona baliokide)




Sektore industrialak sortzen dituen isurketak baztertzen baditugu, eta grafikan argi ikusten denez, **garraio sektorea da isurketa gehien sortzen dituen.**



Iturria: Zigoitiko Tokiko Agenda 21.

### 2 Zigoitiko ur-eskakizuna:

Zigoitiko ur eskaerari dagokionez, azken urteotako ere joera behera doa, beraz esan daiteke emaitza positiboak lortzen ari direla. 1.000 eta 5.000 biztanle artean duten EAEko gainontzeko udalerriekin konparatuta, adierazle honen emaitzak ere positiboak dira, gainontzeko udalerrietan, batzaz beste 307.524 m<sup>3</sup> urtero kontsumitzen baitira.



(\*: IHOBE Eusko Jaurlaritzako ingurumen kudeaketarako sozietate publikoa da)

**Informazio gehiagorako, idatzi hurrengo helbidera:** al21zuia@gmail.com

## Aranzadi Zientzia Elkarteak zuzenduta eta Zigoitiko Udalak bultzatuta

## Anfibioak babesteko urmaela eraikiko da



Baso igel jauzkaria.



Anfibioak berreskuratzeko urmaela Jaizkibelen, Gipuzkoan.

Proiektuarekin Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean zehaztutako helburuetako bati erantzuna emango dio Udalak.

Biodibertsitatea izaki bizidunontzat funtsezkoa da: ekosistemek funtzionatzeko ezinbesteko engranajea. Esate baterako, elikagaiak lortzeko, lehengaiak lortzeko, medikamentuak sortzeko, hondakinak deskonposatzeko...

Gizakiok ezin dugu biodibertsitate gabe bizi. Hau dela eta, biodibertsitatea zaintzea ez da bizitzaren berme hutsa, baizik eta gure bizitzaren bermea. Hori kontuan hartuta, desagertzeko arriskuan dauden anfibioen espezie batzuk babesteko eta berreskuratzeko urmael bat egingo da Gorbeia inguruko magaletan datozen bi urteotan. Zigoitiko Udalak bultzatuta, proiektua Aranzadiko Zientzia Elkarteko ikerlari eta adituekin elkarlanean garatuko da, Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako laguntzarekin.

Askotan, anfibioen kontserbazio egoera gure ingurumenaren egoeraren adierazle ona izaten da, espezie hauek oso exigenteak baitira bizirauteko behar dituzten baldintzei dagokionez. Beraz, habitat hauek baldintza egokietan ez badaude, animalia horiek izango dira ondorio kaltegarriak jasango dituzten lehenak, euren biziraupena arriskuan jarri.

'Ezinezkoa da ezagutzen ez dena babestea' esaten ohi da zientzialarien komunitatetik. Hori dela eta, urmaela martxan jarri baino lehen urte beteko ikerketa lanak egin ditu Aranzadik Zigoitiko udalerrian, anfibioen espezieen egoera, populazioak eta beharrezkoak dituzten habitak aztertuz. Proiektu honen bidez babestu nahi den anfibio bat baso-igel jauzkaria (igel

bizkorra edo dalmantina) daukagu. *Euskal Autonomia Erkidegoko espezie mehatxatuen katalogoan* kaltebera bezala sailkatuta dago, eta estatu mailan, ordea, desagertzeko arriskuan dauden espezieen artean aurki dezakegu.

Honez gain, urmaelak bestelako espezie batzuk babestea du helburu: ur igel arrunta (*Pelophylax perezi*), iberiar baso igela (igel iberikoa) edota uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*), besteak beste. Anfibio mota hauek ingurune hezeak behar dituzte ugaltzeko, horregatik, espezie hauen biziraupena bermatzeko inportantea da neurri zehatzak hartzea, urmaela eraikitzea adibidez.

Proiektua garatuz mehatxatutako espeziak babestea gain, herritarren artean biodibertsitatearen ezagutza handitzea espero da eta ingurumena eta habitat ezberdinak kontserbatzeko sentsibilizazioa piztea. Horregatik, identifikatutako espezieen jarraipen lan zehatza egingo dute Aranzadiko zientzialariek. Ondoren, emaitzak herritarrei ezagutzera emateko bide ezberdinak erabiliko dira: gidaliburuxka baten argitalpena, hitzaldiak edo maiatzaren 16an egingo den bezalako bisita gidatuak. Zentzu honetan, herritarren inplikazioa bilatu nahi du udalak eta, ahal den neurrian, ingurumena babestu eta kontserbatzeko erantzukizuna herritar orori luzatu ere bai.

**Informazio gehiagorako, idatzi hurrengo helbidera:** al21zuia@gmail.com

## Udalak eta Berdinbidean proiektuak antolatutako Rap tailerren neska talde batek hartu du parte Rap-a, ahalduntze feministarako tresna



*Furia* euskal raperoa arduratu da tailerra emateaz.

80. hamarkadan sortu zen, Estatu Batuetako komunitate afroamerikarrean eta *Hip Hop* kultuaren barruan.

Giza desberdintasunen aurkako erronka-adierazpen modu bat da, eta helburutzat du gogoeta bultzatzea, zirkunstanzien egoeraz arreta deitzea eta posizio nagusien aurrean alternatibak aldarrikatzea. Hori guztia dela eta, ahalduntze feminista lantzeko oso tresna egokia da: eguneroko ekintzetan eta jarreretan normalizatutako mekanismo sexistak identifikatzeko aukera ematen baitu; errealitateko adierazpen askatzailea eta zentsurarik gabekoa errazten baitu; eta emozioak maneiatzeko adierazpen-modua osasungarri bihurtzen laguntzen baitu.

Horrela heldu da Zigoitira Rap-Lantegia, Berdinbidean proiektuaren eskutik eta Udaleko Berdintasun Planaren barruan.

Azken hilabete hauetan, neska benetan gaztez osatutako talde bat (9 urtetik 13ra bitartekoak) aritu da Rap-ean. Lehenengo saiotik lotura estua sortu zen *Furiarekin* (euskal raperoa eta lantegiaren arduraduna). Horrek ahalbidetu zuen elkarren arteko benetako komunikazioa,aldi berean hurbila eta gordina zelarik. Eta lortu duena izan da 'ardura eta hazkunderako nesken arteko espazio kolektibo bat', non bultzatu den

gauzak egiteko modu ezberdinekiko errespetua. Azken saioan, konposatzea izan zuten helburu. Bertan ikusi ahal izan ziren taldeko kideen arteko bapateko lankidetzaz, bakoitzaren gogoetarako ahalmena eta ahalduntze feminista martxa betean (neskek bere buruak ikusten dituzte, sentitzen dituzte, bakarrik kantatzeko gai ikusten dituzte... eta gozaten dute). Eta gehiago eskatzen dute, gehiago exijitzen dute... tailerrak jarraitzea nahi dute, ez bukatzea. Motza geratu zaie. Konektatu dute. Beren buruarekin. Elkarren artean. *Furiarekin*.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute. 'Ikasi dugu neskei bakarrik zuzendutako Rap tailer batek emakumeen ahotsa entzutea errazten duela, eta hori ez litzatekeela posible izango lantegi misto batean; behintzat, ez hain garbi eta hainbesteko indarrarekin. Ikasi dugu neska horiek oso argi dituztela gauza asko; askotan, emakume helduok ditugunak baino gauza gehiago eta argiagoak. Eta, gainera, ikasi dugu agian hasi behar dugula pentsatzen ezin dugula ahaztu *txanponaren beste aurpegia*: gizezkoen kontzientzia izateko, eta ezarritako eta normalizatutako jarrera matxistaz ohartzeko aukera eman behar diegula. Eta ahalik eta lasterren, hobe.'

## GORBEA ERRETIRATUEN ELKARTEA

### Une gozoak gimnasia, hitzaldi eta karta-saio artean



Taldea Cabarcenon bisitan.

#### - Noiz eta nola jaio zen?

1988an, udalerriko pertsona nagusiak elkartzeko asmoarekin. 'Hemen negua oso luzea delako eta herriak oso bananduta daudelako', azaldu digute. Gaur egun 100 lagun baino gehiago dira, 53 emakume eta 55 gizon. Guztiek Zigoitian erroldatuta eta 60 urtetik gorakoak. Baina zenbakietatik aparte, talde honetan arreta ematen duena giro ona da. 'Oso elkarte eroso eta entretenigarria da. Jende oso heldua dago, baina primeran daude fisikoki eta baita burutik ere. Bazkideak jatorrak dira benetan, egiten duzuna eskertzen dute eta oso une gozoak pasatzen ditugu guztien artean', kontatu digute taldeko bi bazkide gogotsuenek.

#### - Zer egiten da Gorbea taldean?

Astean bitan, asteartetan eta ostegunetan, arratsaldeko 5ak eta 8ak bitartean elkartzeko dira Zigoitiko Zentro Soziokulturalean (bide batez, zentroko gainontzeko erabiltzaileekin elkartzeko aukera izanez). Lehenengo orduan gimnastika egiten dute eta beste biak kartetan eman ohi dituzte. Partidetan emakumeek zein gizek jolasten dute baina gimnasia orduan, aldiz, neskek bakarrik hartzen dute parte, oraingoz behintzat, klasea irekita baitago gizonen parte-hartzera. Eta inor etxean gera ez dadin, autorik ez duelako

edo dagoeneko gidatzen ez duelako, garraio zerbitzua daukate. Aldez aurretik abisatuta, autobusa herrietatik pasatzen da elkartzeko bazkideak etxetik eraman eta gero bueltatzeko.

#### - Hirugarren Adinekoen Elkartegiak

Neguan Arabako Foru Aldundiko Hirugarren Adinekoen Elkartegiaren programan hartzen dute parte.

Otsailean eta martxoan, arratsaldeko 6etan gai ezberdinak jorrotzen dituzten hitzaldiak entzuteko aukera daukate: elikagaien etiketatzea, motibazioa, barrearen boterea, sexualitatea... Eta egun batean Gasteizera joaten dira programa honetako gainontzeko parte-hartzaileekin elkartzeko eta jai egun ederra pasatzera.

#### - Nola funtzionatzen dute?

Zuzendaritza-batzorde bat daukate, duela gutxi berri dena. Otsailean urteko batzarra egiten dute kontuak aurkezteko, programazioa azaltzeko eta, aurten, presidente berria aurkezteko: José Antonio Sáez de Cámara. Honek hartu du José Luís Ochoa de Eriberen lekua.

#### Info gehiagorako:

kulturtegia@zigoitia.org  
T\_945 46 44 00

Zigoitiko inauterietako mozorro lehiaketa

# Festa E R R A L D O I A

Argazkiak: **Elena Mota.**

Koloreak, beroa, irudimena, umore ona... Eta, batez ere, herritarren gero eta partaidetza handiagoa. Horiek guztiak dira Zigoitiko inauterietako mozorro lehiaketan nabarmentzen diren aldeak. Azken urte hauetan lehiaketa festa eder bihurtu da, giro bikainez, lehiakortasun osasuntsuz eta une ahaztezinez jantzia. Horren erakusgarri, argazki batzuk ekarri dizkizuegu. Eta gomendio bat: asko falta den arren, hasi prestatzen. Zigoitian maila oso altua da eta!

Amaru elkartearen eskutik, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean

## Sormen Kolektiborako Espazio Irekia, aldaketa sozialaren bila



Laura Calzadillaren argazkia.

*Amaru* Elkarteen lanak helburu bat du: aldaketa soziala eragiteko balioko duten herritarren topaketarako guneak sortzea. Aurreiritzirik eta fundamentalismorik gabe. Hori dela eta, apirilean iritsiko da Zigoitira nagusiei, gaztetxoei eta publiko orokorrari zuzendutako apustu hirukoitzarekin.

**1\_ Argazki erakusketa:** *Artea kaleetan* (Euskadi eta Frantzia), Laura Calzadillarena. Gasteizko argazkilariak hainbat herri, genero eta jatorri etnikotako artistak lanean erakusten ditu. Zigoitiko Zentro Soziokulturalean, apirilaren 7tik 16ra.

**2\_ Video-forum:** *Galdutako Esperientziak. Berreskuratutako esperientziak.* Abiapuntua da Boliviako *aymara* emakume indigena nagusien talde bati buruz egindako dokumental bat.

Udalerriko nagusiei ere zuzenduta dago eta helburua du gaur egungo errealitatearen analisia bultzatzea eta, horrela, euren ahotsak gainontzeko belaunaldietara helaraztea. Apirilaren 16an, 10:00etan, Katia Gato Rimbau-k dinamizatuta.

**3\_ Txontxongilo tailerra:** Eskuko txontxongiloak egiten irakasteko, lehendabizi, eta maneiatzen irakasteko, ondoren. Enrique Torrejónen zuzendaritzapean, pertsonen arteko harremanak eta aniztasunaren aurrean gazteek duten jarrera aztertuko dira. Apirilaren 7an, 17:00etatik 20:00etara, 8 eta 13 bitarteko neska-mutilentzat.

**Info gehiagorako:**

[www.amaruintercultural.weebly.com](http://www.amaruintercultural.weebly.com)

## Ikusi arte, Erik! Kaixo, Char!

**Kontatuko didazu ipuin bat?** programaren kronika. Udazkenean ere bai, Zigoitiko liburutegian

Testua eta argazkiak: **Javier Arbulu**



Juan Carlos Alonso psikologoaren hitzaldia.

Bukatu zait Erik Satie (oraingo, behintzat). Ikusi arte Erik! Plazer ederra izan da. Izan ere, beste aldaketa bat sartu dut: hemendik aurrera, gaztelaniaz, taldeak aipatuko ditut emakumezkoen generikoan (*nosotras, las vecinas, las niñas...*). Ez izutu. Pentsa dezakezue pertsoneri buruz ari garela. Lekua aurrezteko aukera bat da. Esango didazue.

Beraz, beste olerkari batengana joango naiz. Char-en poesia, bere mailarik altuena bigarren mundu-gerran lortu zuena, jakintsu arkaikoen garaietara bueltatzenda iluntasunak husteko eta errealitate korapilatsuari argia emateko; betiko aurkarien borrokan erakusten den errealitatea eta, aldi berean, nazismoak pentsamendu utilitaristaren mesederako arriskuan jarri zuen gizakiaren ideiarenerrehabilitazioaren beharrari buruz ohartarazten gaituen errealitatea. Pentsamendu horren ondorioz, izatea objektu (ekoizpen, kontsumo edo ikuskizun objektu) bihurtzen den miseriazko pentsamendu hori. Hor, makien lubakietan, Charrek ikasi zuen bere hurkoak modu ikaragarrian maitatzen. Hor

ikasi zuen batzuetan gaitza zelatan dagoela zure lerroetan bertan. Ikasi zuen garaileei susmo txarra hartzen, eta etorkizuneko munduari (gaur tokatzen zaiguna, hain zuzen ere). Nekazariak eta olerkari onek hitz asko eta mundua begiratzeko modua partekatzen dutela ohartu zen.

\*\*\*

Bere *Hipnos-en Orrialdeetan*, 177.ean, Charrek esaten du: 'Umeak mirari zoragarri hura konplitzeko gai dira: umeak dira gure begien zehar ikusten duten bitartean'.

Pasa den otsailaren 18a, gure liburutegian, Juan Carlos Alonso psikologoak azaldu zuen zergatik den beharrezkoa gure umei ipuinak kontatzea (egia esan, nik *ipuinak kontatzea* utziko nuke. Edaderik gabe, generorik gabe, lerro administratiborik edo kurrikulumeko lerrorik gabe).

Carolek, nire lankide nekazariak, esana zuen Juankar zure bizilaguna izatea nahi zenukeen horietako pertsona bat dela. Galdetu nionean



ea bazekien liburutegira nola heldu esan zidan ez kezkatzeko, beste bizitza batean uso mezularia izan zela. Eta bi gauzak bete ziren: bizilagun ona eta uso mezulari zehatza, ipuinak kontatzeko baldintzarik onenak zein diren azaldu zigun eta etsenpluaren bidez predikatuz bukatu zuen (zoragarria da ikustea mitoarekin, oraindik ere, nola gozatzen dugun).

Juankar gonbidatu genuen **Kontatuko didazu ipuin bat? / ¿Me cuentas un cuento?** programa inauguratzeko, uste genuelako horretarako pertsonarik egokiena zela. Programa oso erraza da: bizilagun talde batek eskaintzen du bere burua gure haurrei ipuin bat irakurtzeko edo kontatzeko. Teknika ez da behar, bakarrik borondatea eta maitasuna.

### 'Umeak baditugu; Ipuin-kontalariak behar ditugu'

Otsailean eta martxoan 6 lagunek hasi zuten kontaktaren dantza primitiboa: Txema, Ana, Sonia, Susana, Aritz eta Leti (jende benetan zoragarria).

4 urtetik 6ra bitarteko umeekin hasi ginen, baina Aimar Martínez de Lafuente eta bere taldeari esker (eskari oso atsegina helarazi ziguten eta), udazkenean, programa berriro martxan jartzerakoan, orduan 7 urtetik 9ra bitarteko haurrei ere ipuinak kontatuko dizkiegu. Hasiera

bakarrik da (txikiak baditugu; ipuin-kontalariak, aldiz, behar ditugu).

Programaren asmoa da, bai adin desberdinak, bai interes, erritmo edota aldi desberdinak daudelako, deskonektatuta dauden udalerriko gune ezberdin batzuk, irakurketa-hari baten bidez lotzea.

Gaur egun liburutegiak eta ludotekak besoz besoz egiten dute lan, Larak eta bere haurrak liburutegiko programaren txokoa apaindu baitute. Baina ez dugu hor gure lana etengo. Ipuinak kontatzeko jarduera hori zerbait handiago izango denaren parte izatea espero dugu. Isuri geldiezina, guztien artean bizitzeko tokia.

\*\*\*

Berriro ere Char, *Hipnos-en* bere seigarren *Orrialdeetan*: 'Poetaren ahalegina bideratzen da etsai zaharrak aurkako leial bihurtzeko. Eta bihar emankor bat proiektu baten arrakastaren menpe dago, batez ere hor, haize oihal gama osorik oldartzen, lotzen, gainbeheratzen den lekuan, kontinenteen haizeak amildegiko haizeari bere bihotza ematen dion tokian'.

Betiko aurkarien borroka berreskuratzea – aurkariak beti dute elkarren beharra-, baina borroka garbian. Bizitza osoko ezinbesteko grina eta lana.



Ander Gómez San Jorgeren erakusketa, maiatzaren 5etik 30era Zigoitian ikusgai

## Paisaiaren hustuketa



Azaleko irudia gustuko duzu? Ander Gómez San Jorge artista gaztearena da, maiatzean Zigoitiko Zentro Soziokulturalean ikusgai izango dena. *Paisaiaren hustuketa* izeneko erakusketaren barruan dago, naturan bizi izandako esperientzia era intimoa eta pertsonalean kontatzea helburu duten formatu desberdinetako marrazki eta margoek osatuta dagoena.

Gómez San Jorgek Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasi ditu. Izan ere, Brerako (Milango) Arte Ederretako Akademian eta Bartzelonan egin ditu ikasketak. Eta bere lana erakutsi du, besteak beste, Bartzelonan, Segovian, Bilbon eta Gasteizen.



Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA													
		ZETAPE ZETAPE	OKIZETA OKIZETA	ETXAGUEN ETXAGUEN	MURUA MURUA	LUMINCHA LUMINCHA	MARBUJA MARBUJA	ZARATE ZARATE	OKAZTEGEO BERRONDUZUA OKAZTEGEO BERRONDUZUA	EMBE EMBE	MURUA MURUA	BERRONDU BERRONDU	APODAMA APODAMA	OKAZTEGEO BERRONDUZUA OKAZTEGEO BERRONDUZUA	VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ
Astakerenak Ostiratsa Lunes a Viernes		*	*	7:00	7:02	7:04	*	*	*	7:08	7:10	*	7:13	7:18	7:50
		*	*	10:00	10:02	10:04	*	*	*	10:08	10:10	*	10:13	10:18	10:50
		*	*	15:35	15:37	15:39	*	*	*	15:43	15:45	*	15:48	15:53	16:25
		*	*	20:50	20:52	20:54	*	*	*	20:58	21:00	*	21:03	21:08	21:40
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua										*Servicio de acercamiento con aviso previo					
Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasurtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua										Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar					

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA													
		VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ	OKAZTEGEO BERRONDUZUA OKAZTEGEO BERRONDUZUA	APODAMA APODAMA	BERRONDU BERRONDU	MURUA MURUA	EMBE EMBE	OKAZTEGEO BERRONDUZUA OKAZTEGEO BERRONDUZUA	ZARATE ZARATE	MARBUJA MARBUJA	LUMINCHA LUMINCHA	MURUA MURUA	ETXAGUEN ETXAGUEN	OKIZETA OKIZETA	ZETAPE ZETAPE
Astakerenak Ostiratsa Lunes a Viernes		9:00	9:25	9:32	*	*	*	9:42	*	*	9:46	9:48	9:50	*	*
		14:45	15:10	15:17	*	*	*	15:27	*	*	15:31	15:33	15:35	*	*
		20:00	20:25	20:32	*	*	*	20:42	*	*	20:46	20:48	20:50	*	*
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua										*Servicio de acercamiento con aviso previo					